

---

---

# ERDU GEUGAZ!

## IBILALDIA-98 MUNGIAN

---

---

Aurten, Bizkaiko ikastolen jaia, IBILALDIA- 98, Mungian egin da: Antolatzaileetarikoko bategaz, Iñaki Goirizelaia mungiarraz, egon gara orreri buruz berbetan. Bera da jai andi orren koordinatzaile nagusia. Ara, zer esan deuskun!

ZER– Aurtengo IBILALDIA-98 maiatzaren 31an egin da. Mungialdeko Larramendi Ikastolak eratuta, Mungian bertan eratu be. Zer dala-eta aurton Mungia?

IG.– Dakizuen lez, IBILALDIA urtero antolatzen dan jaia da. Bizkaiko ikastolen eta euskerearen aldeko jaia da. Orain artean, ez da Mungian egin izan eta Larramendi Ikastolan pentsatu genduan bezala, sasoia IBILALDIA Mungian egiteko. Ori zala-eta, Bizkaiko Ikastolen Federazioan gure proposamena aurkeztu genduan eta aukeratuak izan gintzazan. Uste dogu, oso aukera ona dala, olako jai polita Mungian egiteko. Esan dodan lez, bazan sasoia.

ZER- Zeintzuk dira lortu gura dozuezan elburuak?

IG– Olako jairen bat indarrean ipinten danean, elburu ezberdin asko egoten dira. Alde batetik, euskerea eta euskerearen erabilpena zabaltzeko elburu argia. Gure ustez, olako jaiak eragin polita eukiten dabe beti, au da, IBILALDIA egiten dan tokietan. Eta ez ori bakarrik, ez euskerearen erabilpena bakarrik, beste alde batetik, baita euskal kulturea eta euskal kultureagaz zerikusia daukan guztia be. Ori be zabaldu gura dogu. Badagoz egon elburu ekonomiko batzuk be. Aurten gure ikastolan oso inbertsino andiak egin doguz: eraikin barri bat egin dogu, aurtzaindegia indarrean ipini dogu... Ori guztiori dala-eta, elburu ekonomikoa be badaukagu, egindako inbertsinoei aurre egin aal izateko.

ZER– Larramendi Ikastola izena aitatu dogun ezkeron, azaldu eiskuzu berba gitxitan ikastoleak emoten dauan irakaskuntzea zelakoa dan.

IG– Ikastolearen irakaskuntzea, danok dakigun lez, irakaskuntza euskalduna eta kalitatezkoa da. Gu jo ta ke gabilz bearrean irakaskuntza euskalduna eta kalitatezkoa emon aal izateko.

ZER– IBILALDIA-98rako aukeratu dozuen leloa ERDU GEUGAZ dogu. Zer dala-eta aukeratu dozue leio ori?

IG– ERDU GEUGAZ leloa zer dala-eta? Ori, bai, itaun polita. Arrazoi asko dagoz. Alde batetik, ERDU Bizkaiko berbea da, berba zaarra. Mungian asko erabilten dana. Inguruko errietan erabilten da eta geuretzako oso berba polita da. Berba ori birreskuratu gura izan dogu. Gero, beste alde batetik, ERDU GEUGAZ leloaren bidez gonbidapen zabalada adierazo gura izan dogu. Gonbidapen zabal ori, zertarako? Ba, gure irakaskuntza proiektu euskaldun orretan eta jaietan be esku artzeko. Esku artu eta jaiak GEUGAZ gozatzeko. Beraz, ERDU GEUGAZ, gonbidapen zabalada, alaia eta irribarretsua da.

ZER– Maiatzaren 31an egin da, bada, IBILALDIA-98. Esango deuskuzu, apur gorabehera, zeintzuk diran eratu dozuezan ekintzarik nagusienak?

IG– Ekitaldi asko antolatu doguz orain artean eta ondino geiago antolatuko doguz. Gu IBILALDIA egun bakarreko jai erraldioa bakarrik ez dalakoan gagoz eta orregaitik zabaldu gura izan dogu jai ori urte osoan zear. Ori dala-eta, ekitaldi asko egin doguz. Adibidez, Mikel Laboa egon zan gure artean. Berak aurten egin izan dauan leenengo kontzertua izan da. Maria Bayo soprano ospetsuak Arriagan abestu dau IBILALDIAren alde.

Maiatzean, barriz, Benito Lertxundi egongo da emen. Oso kontzertu polita izan da eta bizkaitar guztiak entzun-bearrekoa. Beste alde batetik, maiatzaren 31an IBILALDIAren egun beratan, gauza asko egon dira, urtero izaten dan lez, bai kontzertuak, bai dantza taldeak, bai musikea, edozein motatako musikea... Nik uste dot, osogai guztiak egon dirala, oso egun polita emoteko.

ZER– Noiz asi zintzezan IBILALDIA-98 eratuten?

IG– IBILALDIA orain dala urte bete ta ilabete pare bat asi gintzazan antolatzen. Olako jai andia indarrean ipinteko aalegin andiak egin bear dira, batez be, antolaketan esku artzen dogun guztiok beste zeregin batzuk be badaukaguzala kontutan

## IKASTOLAK

artuta. Sasoiz asi gintzazan eta orretarako batzorde asko bearrean egon dira. Or, lan andia egin dogu orain arte.

ZER— Erakuntza guztia egiteko bear andia egin bearrean egon zaree, ezta?

IG— Erantzuna. BAI! Argi dago olako montaketearen bat egiterakoan bear andia egiteko dagoana. Zenbaki bat aitatuko deusuet, adibidez, egun orretan 2.000 lagun bearrean egon dirala estimatzen dogu. Egun orretan 130.000 lagun etorriko dira IBILALDIARA eta lagun guzti orreei zerbitzu ona emoteko, jende asko bear da. Ori guztiori indarrean ipinteko, egun bakarreko enpresa andia montatzea dala esango neuke. Eta orrek itzelezko aalegin andia eskatzen dau.

ZER— Non eta noiz izango da datorren urteko IBILALDIA? Nork eratuta?

IG— Datorren urteko IBILALDIA Elorrion egingo da. Elorrioko ikastolea, danok dakigun lez, oso egoera larrian egon da. Baina, gure ustez, IBILALDIAREN eskutik ikastola ori aurrera atarako dogu. Oso toki berezian dago eta danon laguntzinoa bear izango dau berak.

ZER— Eskerrik asko!

Iniaki MARTIARTU  
1998ko epailean

